



# ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

17. Alea 1998ko Otsaila



Pailaso bikote honek bromak egiteko aukerarik ez zuten galdu gero argazkia atera genienean.

## AURTENGO IHAUTERIAK ZAPATU ETA ASTEARTEAN

- XABIER, HERRIKO APAIZAREKIN BARRIKETAN
- HASI DIRA KURTSILOAK IGERILEKUAN
- JENDEA ANIMATUAGO AURTENGO IHAUTERIETAN

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

Eskoriatza

Udaletxea 714407  
 Udal Bulegoak 714532  
 Udaltzaingoa 714407  
 Euskaltegia 792168  
 Kultur-Etxea 714688  
 Gizarte-Laguntzailea 714688  
 Kiroletxea 715328  
 Liburutegia 714688  
 Luis Eceiza 714938  
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486  
 Almen 714964  
 Museo-Eskola 714688  
 Ze Barri 714077  
 Talde Antimilitarista 715028  
 Irakasle Eskola 714157  
 Osakidetza 714452  
 Telesko 714917  
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300  
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76  
 Ertzaintza (Arrasate) 797199  
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800  
 Renfe (Zumarraga) 721515  
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030  
 Pesa (Arrasate) 791419  
 Larrialdiak (Arrasate) 771043  
 SOS Deiak 088

**ZE BARRI?**

**Argitaratzailea:**  
**AXTROKI KULTUR ELKARTEA**

**Erredakzio kontseilua:** Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano.

**Kolaboratzailea:** Iñaki Agiriano.

**Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk.

**Tirada:** 1.500 ale


"ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"

**AZKOAGA  
 ESTANKOA**


*Zure Zerbitzura*

**AITOR OYON GOROSTIZA  
 Pelotaria**

- 1- **Noiztik zara pelotaria?**  
Orain dela 8 urtetik hona.
- 2- **Zenbat pelotari daude Eskoriatzan?**  
30 gutxi gora behera.
- 3- **Zein txapelketatan hartzen duzu parte?**  
"Cuenca del Deba"-n eta "Interpueblos"-en.
- 4- **Euskadin zein da pelotaririk onena?**  
Retegui II eta Eugi.
- 5- **Zerbait irabazi duzu?**  
Eskoriatzako txapelketa irabazi nuen Erizekin batera.
- 6- **Eskoriatzako pilotaririk onena?**  
Edorta Zabala.
- 7- **Zer egin behar da pilotan jokatzeko?**  
Asteartean eta ostegunean pilotalekura joaten bazara han egongo gara entrenatzen.
- 8- **Zertan erabiltzen duzu zure aisialdia?**  
Lagunekin egoten naiz.
- 9- **Zer aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?**  
Gazteentzako gauza gehiago, adibidez gaztetxe bat.
- 10- **Zer iruditzen zaizu ZE BARRI aldizkaria?**  
Ondo, nahiz eta motza izan.



**1-Zer iruditzen zaizu euskaltel zerbitzua?  
 2-Erabiltzen duzu?**



**Emilio Ubeda Azkona**

1- Ez daukat ideiarik ere, iragarkia ikusi dut bakarrik.  
 2- Ez



**Beñat Otxoa-Aizpurua**

1- Iruditu ondo, baina oraindik ez dakit ezer ere  
 2- Ez




**Alberto Salgado Mata**

1- Aukera ona iruditzen zait baina informazio gutxi daukat  
 2- Ez



**Javier Royo Lapuente**

1- Konpetenzia egoten bada ondo dago denontzat  
 2- Ez



**Javi Corbal Vazquez**

1- Zer da hori? Euskadi txirrindulari taldea patrozinatzen duena?  
 2- Ez



**Iñigo Altuna Kortazar**

1- Ez nago informatuta  
 2- Ez



**Kintoak Yolandari aureskua dantzatzen.**

## **SANTA AGEDA EGUNA.**

Aurten hogeita zortzi mutiko ibili dira Santa Ageda batzen etxez- etxe.

**Kinto batzuek dotore egiten zuten aureskua.**



## **GIRO ALAIAGOA AURTENGO IHAUTERIETAN.**

Aurten ihauteriak astebukaeran ere ospatu dira eta jende gehiago animatu da mozorrotu eta kalera irteten. Horren adierazgarri argazkietan atera ditugun herritarrak.

**Baserritarrok umoretsu ortuko barazkiak saldu nahian.**



**Saltsera hauek be buila eta zalaparta baten ibili ziren giroa animatzen.**




**Urtzi baserritarra aker eta guzti azaldu zen herriko plazan.**



## XABIER HERRIKO PARROKOA KUBATIK BUELTAN

### Aita Santuaren etorrera zela eta gonbidatu zuten eta besteak beste, bisitaren prestaketa-lanetan aritu zen.



Iazko udan ere izan zen Xabier Kuban zerbitzu bat egiten, baina oraingo honetan Cienfuegoseko obispoak berak gonbidatuta joan zen hara. Aita Santuak Kubara egin zuten bisita historikoak ohiartzun handia izan du mundu osoan, eta Xabier hain zuzen ere, bisita horren prestaketa lanetan parte har zezan gonbidatu zuten.

Hogei egun egin zituen, baina ez pentsa Kubako hondartza zoragarrietan eguzkia hartzen egon zenik. Egiteko ugari izan zituen, pentsa hasteko, parrokia batera bidali zuten apaiz hedadetu bati laguntzera. Bestalde, arestian aipatu dugun lez, Aita Santuaren etorrera prestatzen ere aritu zen. Beraz, hangoen zerbitzura egon zen, hala nola: bileretan parte hartuz, eukaristia eta bataioak ospatuz...

#### MOMENTU HISTORIKOA KUBARENTZAT.

Mundu osoan ikusmin handia eragin duen bisita hau oso garrantzitsua izan zen Kubarentzat. Hango fededunek ere itxaropentsu hartu zuten bisita hau, Kuban poliki-poliki emango diren aldaketen atalasea suposatu baitzuen. Aitzitik, badaude Kuban figura erlijioso hau ezagutzen ez dutenak ere. Horregatik, Aita Santuaren etorrerak suposatzen zuenaz jendea ahalik eta ondoen informatu behar izan zen.

Gainera, egun horietan mundu guztia Kubari begira egongo zela kontutan hartuz, oso ondo antolatu beharreko gertakizuna izan zen eta Xabierrek ere, hango bat balitz lez, zeregin ugari izan zuen egun horietan.

Airtu zigunez "zoratzeko moduko egunak" izan ziren haiek: listak gertatu beharra, autobusetan jendea hara eta hona eraman behar... Eta gainera, Kubatarrek gauzak antolatzeko dituzten modu aldrebesek (zalaparta asko baina eraginkortasun gutxi alegia), ez zituzten lanak batere samurtzen. Baina jendea pozik, itxaropentsu ikusten zuenez, bera ere gustora aritu zen giro eskandaloso horretan.

Xabierrentzat, Aita Santua irlan eman zituen egunak garrantzitsuenak izan ziren. Oso gertutik jarraitu zuen bisita hau eta besteak beste, Santa Clara eta La Habanako eukaristietan parte hartu zuen.

#### ITXAROPENARI BIDEA ZABALDUZ...

Kuba mundura irekitzeko Aita Santuaren bisita une aprobean izan da. Beraz, aldaketak emango direla sozialismoan pentsa daiteke honekin. Hedabideen bitartez, bisita hau eliza eta Kubako gobernuaren arteko sokatira lez interpretatu izan den arren, bisita honekin benetan irabazi duena herria izan da. Jendeak beldurra galdu du eta interesa agertu Aita Santuaren etorrerak zein ondorio ekarriko dituen jakiteko. Egoerak hobera egingo duenaren itxaropena egon badagoela esan liteke. Hasteko, epe motzeko ondorioak ezagutu ditugu jada,

Cuenta Joven  
de Caja Laboral  
El servicio  
más completo.

**Euskadiko Kutxaren  
Kontu Gaztea.  
Zerbitzuetan  
osatuena.**

  
CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



**Industrias Olabarri, S.A.**

Arana, 20 • 20540 ESKORATZA (Gipuzkoa)  
Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxe: 34-43 - 714061

hala nola, Aita Santuak Fidel Castrori eman zion zerrendatik, ehundaka preso askatzea... honek guztiak, aldaketak emateko borondatea badagoela erakusten du, nahiz eta errealitatea askozaz konplexuagoa den, eta hori konpontzeak luze joko duen.

#### KUBAKO EGOERA EZAGUTZERA.

Bidaia hau egiteko beste arrazoi garrantzitsu bat, Kuban egun bizi duten egoera sakonago ezagutzea izan zen eta horretarako hango familia eta herritarrekin hartu eman zuzena izan zuen. Gainera, hiru egunetako kurtsilo bat ere egin zuen Kubako errealitatea hobeto ulertzeko.

Bestalde, bidaia hau aprobetxatu du Xabierrek, hango seropositiboek behar dituzten botikak hemendik eramateko, han botiken eskasia haundia baitago. Ospitaletan eta osasun zentruetan seropositiboak bisitatu zituen, Kuban gaixotasun hau dutenak zein egoeratan dauden eta zer nolako laguntza ematen zaien jakiteko.



### ALBERTO KUBATAR GAZTEA GURE ARTEAN.

Kubako Elizak eta hemengoak Albertori Euskal Herrira etortzeko aukera eman diote. Hangoek gure sistema hurbilgotik ezagutzeko aukera izatea interesgarria ezezik, onuragarria ere bada, gerora Kuban eman behar diren aldaketak aintzat hartuz, erabakiak egoki hartzen jakin dezaten.

Cienfuegoseko katedralean lan egiten du Albertok, eta Xabier Kuban egon zenean elkarrekin aritu ziren Aita Santuaren bisita prestatzen. Otsailaren 17an berriz, Eskoriatzara etorri zitzaigun eta gure artean izango dugu pare bat hilabetetan edo.

Euskal Herria ezagutzuz, sozialismoarekiko oso ezberdina den errealitate batez jabetzeko aukera izango du. Halaber, hemengo Elizaren eta hangoaren arteko ezberdintasunez ere jabetuko da eta hau guztia oso onuragarria da berarentzat: Sistema kapitalista gertutik ezagutzeko aukera izanik, zituen aurriritziak benetan denarekin konparatu ahal izango ditu. Horrela, bere kriterioak eratuko ditu eta ondoren hemen bititako esperientziaren berri eman ahal izango die bere ingurukoiei.

Denbora gutxi daraman arren, hemen gure artean, jadanik zenbait ezaugarriez ohartzeko astia izan du. Gure bizi maila esaterako, hangoarekin alderatuz askoz hobea iruditu zaio. Bestalde, hona etorri aurretik hemen bakoitzak bere mundua bizi zuela uste zuen, hots, kapitalismoan normalean gertatzen den lez, bakoitzak bere interesengatik borrokatzen duela eta gizartean bakoitzak bere ongizatea bilatzen duela uste zuen. Aitzitik, katekistek eta beste herritarrek egin dioten harrera ona ikusita, jabetu da, zituen aurriritziak guztiz zuzenak ez zirela, hots, gauzak ez direla beti beltzak edo txuriak izaten. Alegia, bestelako alternatiba batzuk ere egon badaudela, beraz, oso aberasgarria izango zaio Eskoriatzan egingo duen egonaldi hau.



**DORLETA**

Aranburuzabala, 22 -bajo  
Tfnoa.: 71 51 20



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

**REPARACIONES LENIZ, C.B.**

Aingeru Ibiltokia, z/g.  
Tfnoa.: 715061



**Esko Sport**

Intxaurtxueta 5 • 20540 ESKORIATZA  
Tel. 71 52 96

txandalak  
zapatilak  
mendiko botak  
aerobic  
futbola  
txirrindua

## IGERILEKUKO IKASTAROAK

Otsailean hasi ziren igerilekuko ikastaroak, eta gutxi gora behera 60 pertsona daude. Ikastaroak ez dira hutsetik hasteko bakarrik, hobetzeko ere badaude. Kanean egon gara galdetzen eta jendea pozik dago. Batzuek oso urduri jartzen direla esan digute baina hori normala da. Ikasi nahi baduzu, kendu beldurra eta zoaz igerilekura, eta han jasoko duzu informazio gehiago.



## JUBILATUEN TABERNA IREKITZEKO NEGOZIAKETAK AURRERA DOAZ.



Akordio batzuk lortu diren arren, Udaletxea eta interesatuen arteko negoziazioak luzatzen ari dira. Bitartean, jubilatuek eta baita txikiteroan aritzen diren herritarrek ere eguneroko ihardunean txoko honen hutsunea somatzen dute.

Udaletxetik adierazi digutenez kontu honen aurrean alderdi politiko guztiek agertu dute interesa eta Gizarte Ongizatearen azken batzorde bileran partidu guztiak bildu ziren irtenbide posibleak eztabaidatzeko.

Udaletxeak interesatuekin negoziazioak egiten jarraitzen du eta badirudi laster adostasun batera helduko direla.

## KIROL IHARDUEREN ARDURADUNAK HAUTATZEKO PROZEDURA MARTXAN DAGO

Orain arte alegazioak egiteko denbora izan da eta guztira talde baten hiru alegazio aztertu dira. Hauetatik guztietatik bakarra onartu da, baina hala ere honek ez du hasierako oinarrietan eraginik. Orain, hilabete egongo da gutxi gora behera hautagaiak aurkezteko, eta gero beste hainbeste hauen artean bat aukeratzeko.

Beraz, laister ezagutuko dugu kiroldegi berria eta frontoiko gimnasioaren enpresa arduradun berria.

## FRONTOIAN OBRAK EGITEKOTAN DIRA

Esan digutenez, aldagelak berriztuko dituzte, eta eskaileretan persiana batzuk ipiniko dira jendeak bigarren pisura ez igotzeko. Honekin frontoia egunez zabalik egonda ere, kantxatik kanpo inor ibiltzea ziurtatu nahi da.

**BEKAK**

- Biomekanika eta kirol medikuntza espezialitateetarako postgraduato hezkuntza bekak. Epea: martxoak 4.
- Kirol materialak euskaraz sortzeko bekak Deba Garaiko Euskara eta Kirol Zerbitzuen eskutik. Epea: apirilak 20.
- Laburmetriak produzitzeko laguntzak ICCA antolatua. Epea: ekainak 23.
- Gutxitu Fisikoei zuzenduta, lanbide heziketarako bekak, Mapfre Fundazioak deituta, 98-99 ikasturterako. Epea: martxoak 31.

**LANA**

- Gipuzkoako Diputaziorako suhiltzaile postuak bete nahi dira. Epea: martxoak 4.
- Oretako Udalerako administrari laguntzaileak behar dira. Epea: martxoak 5.
- Bergarako Udalak, bertan lan egiteko elektrizista lan poltsa osatu nahi du. Epea: martxoak 6.
- Burlatako Udalak, administrari bat behar du. Epea: martxoak 13.
- Jakinarazle bat behar du Arrasateko Udalak. Epea: BOEn argitaratu zain.
- Sestaoko Udalerako, flauta irakasle bat behar da. Epea: BOEn argitaratu zain.
- Gipuzkoako Aldundiak, gizarte zerbitzuen gestio teknikaria, programa espezializatuen gestio teknikaria eta kontratazio eta aurrekontu gestiorako teknikari lanpostuak bete nahi dituzte. Epea: BOEn argitaratu zain.
- Bilboko Udalak, liburuzain eta artxibozain bat behar du. Epea: BOEn argitaratu zain.

**LEHIAKETA**

- Gazte Kutxak, urteroko ikasketabidaien proiektu lehiaketa antolatu du. Bertan Gipuzkoako ikastetxeetan ari diren BBB, IEE, UBI, LH I, LH II, LOGSE Batxilergoa eta unibertsitate mailako ikasleek parte hartu ahal dutelarik. Epea: martxoak 7.
- Erreterria Hiriko IV. Bideo lehiaketa 30 urtetik beherakoei zuzendua, lanen gehieneko iraupena 30 minutu. Epea: martxoak 20.
- "Gaztebideo" lehiaketa, gazteen argumentudun bideo amateurren VI. erakustaldia. 20 minututik beherako iraupena, parte-hartzaileen gehiengoak 21 urtetik beherakoak behar dute izan. Epea: maiatzak 15.
- Arabako Aldundiak hurrengo lehiaketak deitu ditu:
  - Arte plastikoetako urteko Amerika anuala (*erosketa eta laguntza*). Epea: otsailak 28.
  - Ignazio Aldekoa XXVII. Ipuin lehiaketa. Epea: irailak 24.
  - Sorkuntza historikoaren IV. Lehiaketa, literatura modalitatean (*Euskaraz nahiz gazteleraz*), eta modalitate grafikoan (*argazkiak, pinturak, eskulturak ...*).
  - Becerro de Bengoa X. literatur sariketa. Epea: urriak 1.
  - Ernestina de Champourcin IX. poesia lehiaketa. Epea: urriak 1.
  - Blas Arratibel eskulangintza lehiaketa. Epea: abenduak 17.

**UDA GUZTIAK EZ DIRA BERDINAK, ISI**

Irakurle, abenturazalea bazaitugu, ziur Inaki Irazabalbeitiaren liburu hau gustoko izango duzula. Gertakizun xeberre xamarak, ez ohikoak, kontatzen ditu euskal idazleak liburu honetan, ez baita egunero kontua euskaldun batek espaziountzi bat zapaltzen duela entzutea.

Isi, munduan zehar, interes orokorra duten notizien bila aritzen den kazetari presua dugu. Lanean gogotsu, jakinmina ase ezinik ibili ohi den horietakoa. Gertakizun arruntenetan ere ezkutuan zerbait denaren zantzuren bat aurkituko du hark segurur. Horregatik, ia hutsik egin gabe, afera non, bada Isi ere urrun barik han ibiliko da.

Udako oporretan aspertu egingo zela sinetsita egon arren, Errusiara egingo zuen ustegabeko bidaiaren bere usteak hutsal gertatu ziren. Abentura anitzetan murgildu zen. Estatuko sekretutzat duten espaziountziaren kontu horretaz gehiago jakin nahiko du eta kontakizuna aurrera doan heinean, Isiren jakinmina hazi egiten da; Eta bide batez irakurle, baita zurea ere.

**JAIOTZAK**

IORITZ DIAZ DE GUEREÑU ORTUETA, 1998ko otsailaren 13an.

OIER BALBAS DEL PALACIO, 1998ko otsailaren 20an.



35 urte Kinto koadrila dotoria bildu zen Bolibarren, soinujole ta guzti gainera.

Izenak goitik behera eta ezkerretik eskuinera:

Luis "Otzaibe", Miguel Ortueta "Uretz", Jose Ignazio "Burdintxo", Xanti Eskibel "Lete", Maximo Iñurrategi "Jausoro", Jose Eduardo, Isidro Altuna.

Joan Ignazio, Aperribai (Soinujolea), Jose Antonio Oianguren (Etxebarri), Jose M<sup>a</sup> Agiriano "Karo", eta Jesus M<sup>a</sup> "Lapatza".

## HEMEN ZURE

### PUBLIZITATEA

## Pub ALDATZ

Tfnoa.: 714171

*Musika ona entzun dezazun*



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Tfnoa-Faxa: 714845  
**ESKORATZA**

## BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea  
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK  
EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

## TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

KARAJILOETAN  
ESPEZIALIZATUA